

adi gure musikari, adi!

notak eskala musikalean

Modu askotako sentimenduak, bizipenak, esperientziak daude. Hotsen bidez espresatzen ditugu: hitzekin eta musikarekin. Baina hots guztiak ez dute zernahitarako balio. Badira hots antzinakoak eta berri-berriak, jolastiak eta serioak; aingura bat bezain astunak, airearen pisua dutenak; irri edo negar egiten dutenak; nahigabearen murmurioa entzunarazten dizkigutenak, besarkada baten beroa eta izaren arteko leuna iradokitzen dutenak.

Hots bakoitza esperientzia askoren enkontrua da eta ez du berdin funtzionatzen ingurune eta momentu guztietan: orain nagi iritsi zaizun hotsa atseginaz portatuko zaizu beste hots horren ondoan; atzo poztu zintuenak tristatu egingo zaitu gaur. Hotsen sekuentziak eta erritmoak egiten du, besteak beste, poema bat goratsu, musika bat eder. Gure pertzepziora noiz eta nola iristen den, zein tenoretan jasotzen dugun da galga.

Hitza eta musika esperientzia akustikoak dira lehendabizi eta ororen gainetik, halaxe dira haur-haurretatik: belarrira heltzen dira, adimenera baino askoz ere lehenago. Denok izanak gara haur, txikitan izan genituen esperientzia akustikoeak, hitzen arteko erritmoak, doinuuen koloreek markatugaituzte, bizi gaituzte.

Entzun, entzun arretaz ume batzuk hor hurbil festa giroan, herrenarena egiten lehendabizi, ibilera normalean gero. Do-re-mi, hanka oker hori, fa-sol-la, zuzendu zaiolakantzen ari dira eztarria urratu beharrean.

Umeek diziplina musikalaren oinarri didaktikoa —noten eskala— hartu dute herren baten ibilerak kontatzeko, haren istoriotxoak dramatizatzeke, musikaren miraria modu jostari eta ezin estilizatuagoan ospatzeko. Berek ez dakite, noski, baina musikaren oinarri guztiak laburbitzen ari dira lelo behin eta berriro errepikatuekin: musika doinu eta hitz, musika mugimendu, musika eszenifikazio, musika erritmo eta jolas, musika denbora eta espazio, musika iradokizun.

Anjel Lertxundi

notas en la escala musical

Hay muchas clases de vivencias, experiencias, sentimientos: los expresamos con sonidos; con palabras y música. Pero no todos los sonidos sirven para todo. Hay sonidos antiguos y nuevos, lúdicos y serios; los hay pesados como un ancla, los hay ligeros como el aire; sonidos que producen alegría o desazón, que nos evocan el murmullo de una fuente o el que produce el viento en las ramas del bosque; sonidos que, como susurros, nos sugieren el calor de un abrazo, la delicadeza contenida entre dos sábanas.

Los sonidos son lugares de encuentro de muchas experiencias y no se manifiestan siempre de la misma forma: el sonido que te acaba de llegar con indolencia adquiere otro empaque si lo unes con aquel otro más decidido; el que ayer tanto te alegró hoy te ha producido tristeza. Son la adecuada secuencia de los sonidos y su ritmo los que hacen que un poema sea bueno, que una música sea hermosa. También el modo y momento en que llegan a nosotros, el estado de ánimo con que los recibimos.

La palabra y la música, son ante todo y sobre todo, experiencias acústicas. Lo son desde que nacemos, y aquellos ritmos verbales, aquellos colores musicales de nuestra infancia nos han marcado, son el embrión de nuestra actual sensibilidad musical.

Escuchad, escuchad con atención a esos niños que, imitando primero el renqueo de un cojo y luego caminando con naturalidad, cantan con energía una cantinela tradicional: Do-re-mi, hanka oker hori, fa-sol-la, zuzendu zaiola (traducido por algún maestrillo como Do-re-mi, la pierna me rompi, fa-sol-la, ahora sana está).

Los niños han elegido, con inconsciente desenfado, la base de la didáctica musical —la escala— para conarnos, contrapunto rítmico con las notas musicales del texto, las peripecias de un cojo y dramatizar su estilizada historia. Ignoran que están activando y celebrando una y otra vez los fundamentos del milagro musical: el sonido y la palabra, el movimiento, la música como escenificación, la música en el espacio y el tiempo, la música como evocación.

Anjel Lertxundi
